

San Joan jaiak bihar helduko dira eskualdera

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

San Joan bezperan, herri gehienetan antolatu dute sua

EGITARUA ▶ Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan jaien baitan, ekitaldi ugari izango dira ▶ 4-5



Jokin Bildarratz. I. TERRADILLOS

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA

«Tolosa hobea eraikitzen lagunduko duen edonork du lekua»

Gehiengo osoarekin eutsiko dio beste lau urtez alkatezari ▶ 2



HITZA

Puntako musikariak Tolosandblues-en

TOLOSA ▶ Hilaren 29an eta 30ean ospatuko dute jaialdiaren hirugarren edizioa, Fronton kafetegian eta Plaza Berrian ▶ 3

LEITZALDEA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiriak banatuko dituzte bihar Leitzan

50 eragilek jasoko dute Leitzan eta Areson, 20:00etan herriko plazan egingo duten ekitaldian ▶ 7

HITZAKO HARPIDEDUNEI ESKERRIK ASKO!



Urteko kuota ordaintzeko kontu korronteko zenbakia ematen duzenon artean Tolosako Casa Julian jabetxean afaria zozketatu dugu eta hauxe da irabazlea:

▶ Idoia Murillo (Villabona)



ematen duzenon artean Ortzadar lentzeria-dendan 120€-ko erosketa txartela zozketatu dugu eta hauxe da irabazlea:

▶ Mari Carmen Dolado (Tolosa)

Banaketa txukuna izan dadin giltza

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA

«Tolosa hobea eraikitzen lagunduko duen edonork du lekua guretzat»

3.203 boto lortu zituen EAJk udal hauteskundeetan, eta ondorioz, gehiengo osoarekin eutsiko dio Jokin Bildarratzek alkatezari

IÑIGO TERRADILLOS

Azken legealdia Tolosako alkate bezala «apasionantea» izan dela dio EAJko Jokin Bildarratzek (Tolosa, 1963). Hurrengo lau urteak ere «ilusio berarekin» lanean jarraitzeko asmoa azaldu du.

Hauteskundeen balorazioa? Espero zenituzten emaitzak?

Emaitzak guretzat, zalantzarik gabe, oso onak izan dira. Zerbaki absolutuetan mantendu eta proportzioz igo egin gara, abstentzioa handiagoa izan baita. Herritarrek eskertu nahiko nituzke emandako babesagatik eta guran jarritako konfiantzagatik. Une honetan horrelako babesak jaso eta gero, ardura handiagoa duzu gauzak jendeak espero dituen bezala erantzuteko.

Nola osatuko duzue Udala?

Kanpainan esan bezala gure borondatea hirukoaren formularekin jarraitzea. Dena den, Ezker Batuak esan du oposizioa joan nahi dutela. Oposizioan edo gobernuan guretzat oinarritzko ardatza hirukoa izan da eta beraiekin lan egitea gustatuko litzaiguke. Tolosa hobea eraikitzen lagundu dezakeen edonork dauka lekua gurekin lana egiteko. Hurrengo asteetan gobernu osatuko, batzordeak definitu eta arduradunak zehaztuko ditugu.

EA eta EB-Aralarren botoak jaso zenituzten alkatezarako. EB-Aralarren bagenekien. EArena, ordea ez. Beraien boz-karekin, gauzak ondo enfokatu gero hurrengo 4 urteetan ere elkarrekin lanean jarrai dezakegula adierazi dute.

Ezker abertzaleak zein leku izango du Udalean?



I. TERRADILLOS

ESKER ABERTZALEA

«Beraiek egotea nahi dugu, udaletxean parte hartuz eta hartzen diren erabaki guztien kontrola izanik»

Ez dugu ezer adostu. Hilaren 16a baino lehen bilera bat egin genuen, eta bertan eskatu ziguten ez hartzea beraiek interpretatzen duten zinegotzi postu hori. Guk esan genuen ezetz, guk hartuko genuela. Baina, aldi berean, guk badaukagu konpromiso bat non nahiko genukeen beraiek inplikatzeko eta

ARDATZAK

«Gazteriaren baitan, etxebizitza, aisia eta enplegua sustatzea da gure helburu nagusia hurrengo legealdian»

errespetuz eginiko elkarrizketa izan beharko luke lan ardatza. Beraiek egotea nahi dugu, udaletxean gurekin parte hartuz, egiten diren elementu edo erabaki guztien kontrola dute-larik. Horretarako formulak bilatu behar dira, baina gure borondatea hori da. Guk lan metodologi bat, guztiz diskretuoa

proposatuko diegu eta ea lortzen dugun adostasuna.

Tentsio oneak bizi zenituzten iragan larunbatean.

Egun horretan bizi genuena ez da bidea akordioetara iristeko. Biolentziarik gabeko prozesu bat ireki nahi denean hori ez da metodo onena. Azken batean, edonork edozein lekutan edozer gauza esatea ez da posible. Beraiek ohituta daude kanpainan, esaterako, mehatxuak eta iseka egitera, baina hori ez da bidea. Antton Izagurrek protagonismoa hartu beharko luke, eta elkarrizketaren bidetik, errespetuz, elkarrekin Tolosaren alde lan egitearen alde balego, gure jarrera beti bezala izango da kontsentsu jarrera beraiek udaletxean egon daitezen.

Ekonomia izan duzue gai nagusi kanpainan.

Hauteskunde ondoan, ekonomia gure ardatza izan denez, gure lehenengo deia industria sailburuari izan zen. Zonalderako adostasun bat eskainiko dugu alderdi politiko eta erakunde guztiak elkarrekin lanean aritzeko. Lur zoru industrialak bilatu eta gestionatu beharra dago eta inguruko enprekin harremanetan jarri eta hainbat elementu iraunkor zehaztu. Bestalde, ikerketa bat ere egin dugu, eta ondorioen arabera aterako ditugu hurrengo urteetarako lan ildoak.

Etxebizitzarena da beste pisuzko gaia.

Voith-Gorostidi etxebizitzaren obrak hastear dira, eta zozketa, berriz, urrian egiteko asmoa dugu. Bestalde, martxoan Las Korain Goikoako etxebizitzak abiarazi nahi ditugu baita ere. Hemen %70ak izango dira ba-

besekoak. Eta gogoratu 2015 urte bitarteko Urbanizazioerako Plan Orokorra adostasun osoz ere onartua izan zela Alokairuzko etxeak ere bultzatu nahi ditugu Eusko Jaurilaritzarekin batera. Tolosan etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lehen pausoak eman ditugu, beraz.

Bi hauez gain, proiektu nagusiak zein dira?

Bi ardatz ditugu: ekonomia eta gazteria. Gazteriaren baitan, aisialdia, etxebizitza eta enplegua jorratu nahi ditugu. Aisian, esaterako azken urteetan bezala jarraituko dugu nahi dugulako Tolosa Gipuzkoan erreferente izaten jarraitzea. Arlo askotan izatea nahi dugu erreferente. Oso proiektu garrantzitsuak ditugu aipaturikoez gain: Txotxongiloen Zentroa, Gerontologikoa, Igarondo igerilekua botata dago eta laster papelera ere, Zumardi Handian hasiko dira obrak, gero Eusko Jaurilaritzarekin itxi dugun akordioa dator kolektorea egiteko, Rondilla luzapeneko aparkalekuak... legealdi mugitua izango da.

Abastos ez duzu aipatu.

Heldu behar zaio, gehienok baitugu ideia nondik nora jo behar duen. Bizilagunekin ere adostasuna lortu behar dugu. Horrekin batera, Alde Zaharreko ezkerreko zatia ere gauzatu nahi dugu, eta presarena ere hor dago. Indar guztiak jarriko ditugu proiektu guztiak posible izan daitezen.

Zertan aldatu da Tolosa?

Azken lau urteetan ikaragarri aldatu da. Erreferente bihurtu da, eta izpirituan eta paisaiari dagokionez ere beste herri bat da. Bizia duen, amesten duen eta ilusioa duen Tolosa bat nahi dut.

Urte hauek alkate bezala nolakoak izan dira?

Apasionanteak, asko gozatu dut eta gozaten ari naiz. Oso emankorrak izan dira, gauza onekin eta txarrekin. Bai une onean nahiz txarrean gauza izan garena uste dut, Tolosaren alde lan egiteko emaitza onak lortuz. Guztien ahotan izan da Tolosa eta gustatuko litzaideke beste lau urte ere hala izatea.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▶

Amarotz antzerkiaren biltoki izango da berriro ere

E. EZEIZA

Amarozko Antzerki Artisauek taldeak, urtero bezala antzerki astea antolatatu du. Datorren astean, astelehene- tik astezkenera antzerkiaren eskenatoki bilakatuko da Amarozko Auzo Etxea. Denera bost emanaldi izango dira.

Astelehenean, 22:00etan Pasaiake Antzerki taldeak emango dio hasiera antzerki asteari. Hauek joan den urtean ere etorri ziren. Oraingoan *Canibales adosados* lana aurkeztuko dute. Hurrengo egunean, asteartean bi emanaldi izango dira, lehendabizikoa 18:00etan, eta bigarrena ordu bat beranduago, 19:00etan. Lehen antzezlanak Toni Lasalen eskutik etorriko da, honek *Birusak erasoan!!!* izeneko obra taularatuko du. Bigarren saioa eskualdekoena izango da, Adunako Asvinieneak *Txotxongilo taillerria* antzeztuko dute.

Asteazkenean, «etxekoan» txanda izango da, Amarozko Antzerki Artisauek taldeak *Un poco de tiempo* aurkeztuko du. Egun honetan bertan, eta ordu berean Mi cabeza que habla antzerki taldeak *SOS y los demas* lana taularatuko dute.

TRIATLOIA ▶

Unai Aizpuru Nizako Ironmanean lehiatuko da

E. EZEIZA

Unai Aizpuru ibartarrak Nizako Ironman-ean hartuko du parte igandean. Proba gogorra izango da asteburu honetako, bete beharreko distantzia 3.800 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika izango da. Hori dela eta zorte ona opa diote taldekideek.

Bitartean, egun berean, Donostian Onditzen XX. memorialeko triatloi olimpikoa jokatuko da. Proba goizeko hamarreta hasiko da, eta Tolosaldeko Triatloi Taldeko ordezkarik gehienak han izango dira, eta parte hartuko dute proban.

TOLOSA ▶ KULTURA

«Munduko puntako» musikariak izango dira Tolosandbluesen

Hirugarren edizioa hilaren 29an eta 30ean ospatuko da; Fronton kafetegian eta Plaza Berrian izango dira saioak



Atzoko aurkezpenean, ezker-eskuin: Jon Gaztañaga, Jokin Bildarratz eta Iñigo Martin. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Sanjoanak oraindik hastear badira ere, datorren asteburuari begira jarri dira dagoneko Tolosako Udalekoak. Izan ere, hilaren 29 eta 30ean Tolosandblues jaialdiaren hirugarren edizioa ospatuko dute. Atzo goizean aurkeztu zuten egitasmoa musikan aditu eta Tolosandblueseko laguntzaileria den Iñigo Martinek, Jokin Bildarratz alkateak eta Jon Gaztañagak. Azken hau arduratu da karriaren diseinuaz.

Iñigo Martinek azaldu zuen bezala, «jaialdi hau sortu zenean, gure asmoa zen pixkanaka hazten joatea, eta aurten, kalitatean salto txiki bat eman dugu». Blues eta jazz munduan oso ezagunak diren taldeek hartuko dute parte. Orotara lau

kontzertu izango dira, bi Plaza Berrian eta gainontzekoak Kafe frontoian. Emanaldi guztiak doakoak izango dira, beraz edozein joan ahal izango da kontzertuak entzuteratzen.

EKAINAK 29, OSTIRALA

THC. Iruñeatik datorren talde honen emanaldia Fronton kafetegian izango da, 23:00etan. 1999an sortu zen talde honek dantzarako doinu eta erritmo aproposak ekarriko ditu Tolosako jaialdira. Antolatzaileen esanetan, Tolosandblueseko aperitiboa izango da. Donostiako Jazz jaialdian ere parte hartu zuten, eta puntako emanaldia eskaini zuten.

EKAINAK 30, LARUNBATA

Jean Mari Ecay Quartet. Plaza Berrian, 20:30ean eskainiko du

kontzertua Ipar Euskal Herriko talde honek. Jean-Marie Ecayk musika ikasketak burutu ondoren musikatik profesionalki bizitzea erabaki zuen, eta sei urtez Hego Euskal Herrian eta Espainian zehar ibili zen. Lehenik, ezagun egin zuen Itoiz taldearekin ibili zen, eta ondoren Michel Portal, Ruper Ordorika, Jackes Higelin, Eddy Louiss, Richard Galiano edo Calude Nougarorekin, besteak beste. 1987. urtean Bernard Lubate-

kin zebilela, Didier Lockwood ezagutu zuen eta 1993az geroztik Caron Ecay Lockwood hirukotearen abenturan murgildu zen.

Angela Brown & Blues Band. 22:30ean Plaza Berrian izango da bluesaren jainkosatza hartzen den emakumearen kontzertua. Kritikoek «basati, zirikatzaila eta gogorra» bezala deskribatzen dute bere zuzenekoak. Artista chicogarra (AEB) Alemaniako talde batekin dator. Emanaldietan jendearen parte-hartzea bultzatzea gustatzen zaio. Brown-i 80ko Bessi Smith deitu zioten, bluesa interpretatzen erakutsitako ahalmen eta antzezpene gaitasunagatik.

Joan Pau Cumellas Blues Band eta Antonio Serrano (artista gonbidatua). Tolosandblueseko azken emanaldia 00:00etan izango da, Fronton kafetegian. Antolatzaileen esanetan, «zalantzarik gabe, gaur egun entzun daitekeen armonika kontzerturik ikusgarrienetakoa izango da, Europan onenetakoak bezala jotzen baitira». Tolosan eskainiko duten saioa Euskal Herriko lehendabizikoa izango da, eta ziurrenik bolada luze batean azkenengoak. Guztira bost musikari taularatuko dira, batetik Joan Pau Cumellas eta bere hiru lagunak, eta bestetik Antonio Serrano. Joan Pau Cumellas kataluniarra lehen ere izan da Tolosan. Honek armonika diatonikoarekin blues, country eta rock erritmoak jotzen ditu. 2001ean Andreu Martinez gitarristarekin batera rhythm'n blues elektrikoa eta bluegrass eta jazz kutsuko taldea osatu du: Mr. Hurricane Band. Antonio Serranok berriz Paco de Luciarekin dihardu biran. Orohar jazz estiloko musika egiten du, baina tarteka blues estiloa ere lantzen du.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Sarrera. Life Festival jaialdiako ekainaren 22ko sarrera saltzen dut prezio onean. Interesatuak deitu 636 17 16 24ra.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai

Tolosan. 3 logela, egongela, 2 bainugelak eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. ikuspegi ederrak.

44.000.000 pezeta. Harremanetarako telefono zenbakia: 626 75 27 44.

LANA

Mantentze lanetarako teknikaria. IPARPET. Lekunberri-Leiza. Informazio eta eskaintza gehiago www.iparpet.com webgunean.

MENDI-ALDE

Egumeko menuak eta karta Bataioak, Jaumartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

FESTAK ONDO PASA!

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

VILLABONA ▶ ARETO FUTBOLA

Transportes Lakunza Euskal Ligan ariko da denboraldi berrian

Mailaz igo ondoren, talde billabonatarra «ilusioarekin eta gogoarekin» dagoela azaldu du Aitor Otaño entrenatzaileak

IMANOL GARCIA

Transportes Lakunza areto futbol taldeak Euskal Ligan jokatu du datorren denboraldian, aurtengoan mailaz igo ondoren. Aitor Otaño entrenatzaileak azaldu duenez, «taldea ilusioarekin eta gogoarekin dago datorren denboraldirako».

Erronka izango da taldearentzat, mailaz igozteak zenbait aldaketa ekarriko dituelako. «Alde batetik, fisikoki hobeto prestatu behar gara, partidetan denbora gelditzen baita baloia kanpora joaten denean eta horrek partidaren iraupena luzatu egiten du», dio entrenatzaileak. Bestalde, ohikoa denez, mailaz igozteak talde ho-



Transportes Lakunza taldeko kideak. HITZA

beagoen aurka lehiatzea ekarriko du. Beste aldaketa bidaiera izango da. Denboraldi honetan Gipuzkoan jokatu dute, baina orain Bizkaian eta Araban

ere partidak izango dituzte. Horrek asko igoko die aurrekontua.

Ligan zazpigarren ostuan gelditu baziren ere, Federazio-

ak igoera fasea jokatzeko aukera eman zien bi talderen aurka, bata Bizkaikoa, bestea Arabakoa. Euskal Ligan beste plaza bat egongo zelakoan egin zuten igoera fase hori eta bi partidak irabazi zituen Transportes Lakunzak. Gero, plaza bat gehiago atera denez, berriak eskuratu dute. «Maila mantentzea» da entrenatzailearen arabera datorren denboraldiko helburua. Halere, jokalariren batek sailkapenean goiko postuetan egon behar dutela esan dio Otañori.

Laguntza bila

Mailaz igozteak aurrekontuan aldaketa handia ekarriko die. Denboraldi honetako aurrekontua 2.000 euro ingurukoa bazen, datorrenean kopuru hori dezente handituko dela kalkulatu dute taldekoek. «Horregatik laguntza eske hasi behar gara, bai Transportes Lakunza gure babesleari, bai beste enpresa eta komertzioiere», azaldu du entrenatzaileak.

Otañok dioenez, «sakarfitzio» gehiago ekarriko dio talde guztiari Euskal Ligan aritzeak. Entrenatzaileak berak ikastaro bat egin behar izango du hurrengo denboraldian postu horretan jarduteko.

POLITIKA ▶

Bilboko manifestaziorako autobusak

EAE-ANVk Bilbon larunbaterako *Prozesu demokratikoaren alde* lelopean deitu duen manifestaziorako autobus antolatuta dituzte hainbat herritan. Horrela, Amezketan Sasurainen izena eman behar da. 15:00etan aterako da plazatik eta gero Alegian geldituko da. Anoetan Itzuli tabernan eman daiteke izena. Villabonan Iratzar tabernan edo 943 69 34 33 zenbakian eman daiteke izena. 15:30ean Olaederra kiroldegitik aterako da.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

Anotea KZgunean tutorearen bisita jasoko dute gaur. 11:00etatik 12:00etara txartel elektronikoki buruzko ikastaroa emango du. 09:00etatik 11:00etara eta 12:00etatik 13:00etara nabigatzeko aukera egongo da.

TOLOSA ▶

EGAKo ikastaroa emango dute Aitzolen irailan

Aitzol Udal Euskaltegiak irailan EGAKo ikastaro berezia emango du. Ikastaroan parte hartu nahi duenak hilaren 26tik uztailaren 6ra dute aukera matrikula egiteko, 09:00etatik 14:00etara.

TOLOSA ▶

Hilaren 25ean dendak ixteko deialdia

Igarondo Tolosako Merkatarien Elkarteak eta Alde Zaharra-Dendak Merkatarien Elkarteak herriko merkatariei hilaren 25ean beren dendak ixtera gonbidatzen dituzte. Izan ere, GAOn 2007. urterako Gipuzkoan tokiko festak izango diren egunak ezartzen dituen ebazpena argitaratu zen, lan-ondorioetarako, igandeez gain, urteko 14 egun baliogabetzat hartzen direlarik, horien artean udal-erri bakoitzeko patroijaiak. Tolosaren kasuan, baliogabetzat hilaren 25a hartzen da, 24a igandea delako.

KIROLA ▶

Emaitza onak lortu dituzte eskualdeko taldeek Gipuzkoako Eskolarteko Paleta Txapelketan

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Eskolarteko Paleta Txapelketan hainbat herritako eskolek hartu dute parte eta emaitza onak lortu dituzte bertan. Lau taldek jokatu zituzten finalak. Alegiko San Joan eskolako C taldea Asteasuko Pello Errota eskolako A taldeari irabazi zion alebin mutiletan. Tolosako Laskorain Ikastolako A taldeak Anoeta Herri Ikastola-



Finalak joakatu zituzten pilotari guztiak. HITZA

ko Zubitxo taldearen aurka irabazi zuen kadete nesketan.

Pello Errota eskolatik bi talde aritu ziren (alebin mutilak biak); Laskorainetik 3 talde (bi kadete nesketan eta bat infantil nesketan); Anoetako Herri Ikastolatik bost talde aritu ziren (bi alebin nesketan, bat infantil nesketan eta bi kadete nesketan); Altzoko eskolatik bi talde (bat alebin mutilartan eta bestea alebin nesketan).

GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

► Eskatzen da:

- Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz ondo egitea.
- Izaera dinamikoa izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculum, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: goierrri@goierrrikohitza.info

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behea. 20200 BEASAIN**

Komunikabide batek pertsona bat behar du
asteburuetan
argazkiak ateratzeko.

Interesatuak deitu
661 678 817ra

LEITZA ▶ EUSKARA

Bai Euskarari Ziurtagiriak banatuko dituzte bihar plazan

Orotara 50 eragile izanen dira aurten ziurtagiria eskuratuko dutenak; ekitaldia plazan izanen da, 20:00etan



Bai Euskarari ziurtagiria eskuratu zuten 58 gizarte eragileak, 2006. urtean. J. ASTIBIA

NAIARA GARCIA

Bihar Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egingen dute plazan, 20:00etan. Ekitaldian Xabier Mendiguren, Kontseiluko ordezkaria, Mikel Baraibar, Aresoko alkatea eta Mikel Iñarregi, Jarraipen Batzordeko kidea izanen dira, eta Leitzako Euskara Zerbitzutik azaldu dutenez, mintzaldi bana egingen dute.

Ekitaldiaren muinak, ordea, Leitza eta Aresoko eragileekin du zerikusia, Bai Euskarari Ziurtagiria sinatu zuten guztiei hau banatuko baitzaie. Eragile-

ak, aurreko urtean bezala, baina jasoko dute ziurtagiria eta Mendiguren, Baraibar eta Iñarregi ariko dira banaketa lanetan.

Jaione Olazabalek aurkeztuko duen ekitaldi honetan musikaririk ere ez da faltako. Txistulariak eta korukoak ere bertan izanen baitira. Ekitaldia amaitu ondoren, lunch-a izanen da. Eguraldi txarra egiten badu, ekitaldia plazan egin ordez karrapean egingen dela azaldu dute Euskara Zerbitzukoek.

2004. urtean Leitza eta Areson 58 eragilek jaso zuten ziurtagiria. 2005. urtean 52 izan zi-

ren ziurtagiria jaso zutenak, eta 2006. urtean kopuruak berriro gora egin zuten, 2004. urtekoa mantenduz (58). 2006. urtean Leitzako 49 saltokik eta Aresoko 9k eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria. Aurten, oraingoz, 50 eragilek jaso dute.

Maider Goñi euskarako teknikariak azaldu duenez, «orokorrean pozik gaude egindako lanarekin. Bajaren bat edo beste izan dugu, denborarekin hori gertatzen da. Urtero berriak ere izaten ditugu, baina bajaren bat ere bai. Orduan, kopurua urte batetik bestera ez da asko aldatzen».

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Jose txo Urrutia harri-jasotze proban lehenengo, Iparraldeko Joko Torneoan

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean Uhartan Iparraldeko Joko Torneoaren lehenengo jardunaldian Jose txo Urrutiak lehenengo postua eskuratu zuen harri-jasotze proban. Lazaro Bujan leitzarra ere parte hartu zuen.

Txapelketa honetan sei proba ezberdin daude: kokkor biltzea, ingude altxatzea, harri-ja-

sotzea, lastoa, zakulariak eta txingak. Lazaro Bujan ingude altxatze proban aritu zen. Jose txo Urrutiak, aldiz, 2 probatan parte hartu zuen: harri-jasotzean eta txingetan.

Bujan hirugarren gelditu zen, 18 kilotako ingudea minutu batean 58 aldiz jaso ondoren (lehenengoak 65 jasoaldi egin zituen).

Jose txo Urrutia harri-ja-

stean lehenengo gelditu zen: 125 kilotako zilindroa minutu batean 14 aldiz altxatu zuen, 112,5eko kubikoa 9 aldiz eta 100 kiloko bola 10 aldiz. Txingetan, ordea, azkenurreko gelditu zen, plazari 6 buelta eman ondoren.

Bigarren jardunaldia igande honetan izanen da, Igantzin, 19:00etatik aurrera. Osotara, 3 jardunaldi jokatuko dituzte.

LEITZA ▶ PILOTA

Herri Arteko finalerdiak, gaurtik hasita, Leitza

Honetaz gain, Elgeta, Urretxu eta Lizarrako finaletan ariko dira Aurrerako pilotariak



Herri Arteko Txapelketa, joan den asteburuan. HITZA

ERREDAKZIOA

Asteburu handia da Aurrerako Pilota Eskolako pilotariarentzat. Lizarra, Elgeta eta Urretxuko finalak jokatzearaz gain, Herri Arteko finalerdiak ere jokatuko baitituzte asteburuan, Leitza. Txapelketa honetako 3 partidularunbatean jokatu diren arren, gazteen mailakoa gaur bertan izanen da, Amazabal pilotalekuan, 18:30ean.

Herri Arteko Txapelketan finalerdiatarako Burlata, Uhartelruña, Lizarra eta Leitza sailkatu dira. Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «garrantzia handiko txapelketa da». Aurreko asteburuan Leitzakoek Irurtzungen aurka bi partidua irabazi eta beste bi galdu zituzten arren, Leitzakoek 9 tanto gehiago lortu zituzten (60) eta finalerdiatarako sailkatzea lortu zuten. Osotara Leitzak 114 tanto lortu zituen eta Irurtzunek, aldiz, 105. Hau eta gero, finalurreko Lizarrakoen aurka jokatzea egokitu zaie, hau da, aurreko urtean irabazte suertatu zen taldearen aurka eta hauek lehenengo, gazteen

mailakoa, gaur arratsaldean jokatuko dute, 18:30ean.

Orotara 8 herriek parte hartu dute 38. Herri Arteko Txapelketan bi taldetan. Lizarra eta Huarte izan dira A taldetik sailkatu direnak, eta Burlata eta Leitza, B taldetik.

Honetaz gain, 3 izanen dira asteburuan Aurrerako pilotariak jokatuko dituzten finalak. Egunak eta orduak zehaztu gabe daude oraindik, baina asteburuan izanen direla zehaztuta dago. Jaunarenak ekainaren 15ean Elgetako Txapelketan Jauregiren aurka jokatu norki gogoki irabazi egin zuen 12 tantorengatik, eta beraz, asteburuan, Elgetako Txapelketako finalean ariko da.

Urretxuko Txapelketari dagokionez, joan den igandean Aritz Sagastibelzak Ezkurdien aurka 18-5 irabazi zuenez finalerako sailkatu zen, eta asteburuan Urretxuko Txapelketako finala jokatu du, gazteen mailan.

Azkenik, hirugarren finala Olano eta Sagastibelzak jokatu dute, Lizarrako Txapelketan.

Praktikak HITZAn irailtik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziaturerako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
 Araba etorbidea, 5 behe-atzeta • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldekohitza.info
(uztailaren 15a baino lehen)

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 21a, osteguna ▶ V. urtea


GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **19** hotzena **14**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitateak.** 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Vilabona-Aitz.** 687 410022. vilabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarralde.** 687 410032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leizalde.** 687 410118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (balantza argizteko, harpidetun egiteko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Lizartza. Udalak ludoteka antolatu du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Bihar da izena emateko azken eguna.

Tolosa. Musika Eskolako Areto Nagusian Musika Eskolako ikasleen kurtso bukaerako kontzertua 19:00etan eta 21:00etan Zerkausian, Hodei Truk abesbatzaren kontzertua (20. urteurrena).

Tolosa. Hilaren 28an hasi eta lau egunetan XIX. San Juan areto futboleko txapelketa jokatu da. Izen-ematea Shanti kirolak dendan egin daiteke hilaren 23a baino lehen.

ZINEMA

Tolosa. Alexander Sokurov zuzendariaren *Russkij kovcheg (Errusiar kutxa)* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, zine-forum saioan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Uztailaren 7ra arte, Aranburun, Kultur Etxeko arte plastikoen lantegietako ikasleen lanen erakusketa.

Tolosa. Nestor Basterretxearen eskulturak eta Iñaki Epelderen pinturak ikusgai izango dira Aranburu Jauregian, CIT-TEren 40. urtemugako ekitaldien barruan. Bisita gidatuak izango dira ostegunetan, ostiralean eta larunbatetan 19:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro aztoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5. 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ahots txiki handienak

TOLOSA ▶ Hodei Truk abesbatzak kontzertua emango du gaur, 21:00etan Zerkausian, bere hogeigarren urteurrena ospatzeko



Hodei Trukeko abeslariak Tolosako Udala Musika Eskolan, artxiboko irudi batean. HITZA

ERREDAKZIOA

A beslari ospetsuak eman ditu Tolosak. Adibiderik handiena da Ainhoa Arteta sopranoa. Bera ere ziurrenik, abesbatzaren batean ekingo zion bere ibilbideari. Horregatik dira garrantzitsuak herrietako kultura eta musika bultzatzen duten taldeak. Lan horretan aritu da, eta ari da egun, 20 urtez Hodei Truk abesbatza, Hodeiartz taldearen filiala. David Azurzaren gidaritzapean ehunka gaztetxo

igaro da taldetik. Bada, gaur, guztiak bildu eta kontzertua emango dute 21:00etatik aurrera Zerkausian.

Kontzertu berezia izango da, besteak beste, abesbatzaren historiaren laburpena egingo baitute. Halaber, 20 urte hauetan taldearentzat bereziak izan diren lanak aurkeztuko dituzte, batzuk Azurzak bere eginikoak edo moldaturikoak: *Trabakantuak*, *Erregiak dotoz*, *Horra Mari*...

Emanaldiaren berezitasunaren beste adierazlea parte-har-

tzailena izango da. Izan ere, Tolosako musika munduan izen handiko lagunek hartuko dute parte. Besteak beste, Hodeiartz abesbatza ariko da Hodei Trukekin batera. Musikari lanetan Ana Iparragirre piano-jolea, Xabier Zeberio biolin-jolea, Ana Txurruka biola-jolea, Amaia Arzamendi biolin-jolea, Igor Egidon biolontxelo-jolea, Lerman Nieves kontrabaxu-jolea, Luis San Sebastian klarnete-jolea eta Iraide Ansorena perkusio-jolea ariko dira. Jon Etxabe tenoreak ere abestuko

du kontzertuan eta Xabier Ormazabal ariko da narratzaile lanetan.

David Azurzaren esanetan, «beti izan dugu argi gure helburua, Hodeiartz talderako ahots berriak prestatzea, hain zuzen ere». Ezbairik gabe, helburu honek maila altuko abesbatza izatera eraman ditu. Eta ezbairik gabe, gaurko gaua berezia eta ahaztezina izango da eurentzat, hogeitertean eginitako ibilbidea ordu gutxi batzuetan laburturik ikusiko baitute.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzañan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...